

EZKONDU NAUN

Marc Egea

Eusk: Ele txera

EVA oporretatik itzuli da mutil-lagunarekin. Estatu Batuetan zehar bidaia egin dute. Ama, **MARIA**, ikustera joan da. **MARIAk** beti amestu izan du alabari ehunka gonbidatu dituen ezkontza bat egitea. Zurrumurru batzuek kezkatu egiten dute.

EVA: Bai, amatxo, zurrumurru horiek egiazkoak ditun: ezkondu naun. Ez ninan abisatu, nik ere ez nekinalako ezkonduko nindunala. Ezta Pedro ere. Besterik gabe, sortu zunan. Kasinotik atera gintunan, limusinaz buelta bat ematera joan gintunan eta... bai, amatxo, limusinaz, kasinoan irabazi geninan. Nik irabazi ninan. Pedrok kartetan jokatu zunan, dadotan, erruletan, den-denetan... ordu bat edo bitan, eta azkenean esan nionan: "Ei, azken fitxa niretzat", makina txanponjalean sartu ninan, palankari eman ninan - filmetan bezala, zas, zas- eta, arraioa, argi gorri bat piztu zunan, alarma jo zinan, poliziaren sirena balitz bezala, eta dirua erortzen hasi zunan -ez dinat arraioa esan, amatxo, esan dut jolasa...-. "Hara". Pentsatu ninan: "Hara, hondatu egin dinat". Baina ez. Gaueko sari nagusia zunan. Diru guztia jaso ez eta dagoeneko hiruzpalau tipo geneukanan mota guztietako luxuak eskainiz: ikuskizunak, suiteak, limusinak, luxuzko afariak, denetik. Limusina hartu eta buelta bat ematera joan gintunan. Xanpaina, kabiarra. Eta horietan kapera bat ikusi geninan, kale galdu batean, neonezko argiekin, eta esan geninan, eta "...zer, ba al goaz?" Eta joan gintunan. Sartu. Ezkondu gintunan. Eta atera gintunan. Elvis Presley ezkondu gintunan, amatxo. Lekukoa, kalean zebilenan emakume lodia izan zunan. Kabiarrera gonbidatu geninan. Eta gero lotara joan gintunan. Suite batera.

Ele txera
Hondatu ez zabalduz

